**ERREPORTAJEA SALBAMENDURAKO TXAKURRAK · GEHIGARRIA KILIBARREN**
**KULTURA "PLAZER BILA (ATSEGINEZ)" JOSU MUJIKAREN OBRAREN ESTREINALDIA**

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko apirilaren 23a/XII. urtea/485. zkia



IGOR BARRUTIA ETA GAS SALBAMENDURAKO TXAKURRA

## Bizitza bat balio duten txakurrak

# Marem

taberna



Zuekin egongo gara
Inunero goizeko 7etatik aurrera
eta astebukaeran goizeko 9etatik aurrera.



**Pintxoak**

**Bokatak**

**Razioak**

**Entsaladak**

**Bernando Ezenarro, 4**



## Zortzi eta zortzi

Zortzi eta zortzi. Edo 8 eta 8. Erdiak emakumeak izango zirela esan zuen Zapaterok hauteskundeak irabazi aurretik, eta hitza bete du. Asteburuan jakin dugu Espainiako gobernu berriaren antolaketa nola geratu den. Izenak, abizenak, adina, ikasketak eta beste hainbat datu ere jakin ditugu. Eta pozgarria iruditu zait gobernu berriaren eraketan erdia emakumezkoak izatea. Are gehiago, presidente ordea ere emakumezkoa da, estreinako aldiz Espainiako aro demokratikoan. Honen harira era guztietako iritziak egon dira. Gehienak onerako, noski, ez bailitzateke batere zuzena izango emakumeak jarri izanagatik kritika egitea Zapaterori. Batzuek esan dute, halere, adierazgarria dela emakumeen ardurapean dauden ministeritzak "light" xamarrak izatea: kultura, ingurugiroa.... Berdin dio, hori gutxienekoa da, oraingoz behintzat. Hara, ni Rosa Regk idazlearekin bat nator. Berak esan duenez, "Beirazko teilatua puskatzea lortu dugu eta emakumezkoak erabakiak hartzen diren bileretan egotea oso inportantea da". Regasek dioen bezala, "Orain arte askorentzat emakumeak ez ginen existitu ere egiten, eta hori arazo handia zen". Ni bat nator berarekin, eta hitz handi eta loditan azpimarratu nahi nuke gobernuan 8 emakumezko izatea ez dela Zapateroren meritua. Edo, hobe esanda, ez da bere meritua bakarrik. Izan ere, askoz inportanteagoa iruditzen zait emakume horiek baietz esateko "ausardia" izatea. Hori da benetako aurrerapausoa. Aukera mahai gainean jarri eta onartzea. Izan ere, emakumezkoon iraultza teorikoa ez baita ezer praktikan jartzeko prest egongo den emakumeak ez dauden bitartean.

**Jasone Osoro**



## Argazkiak

Gaur egun ez da inor harritzen argazki bat ikusteaz. Eta argazkizaleok bai harritzen gara edonolako argazkiak ilcusteaz. Lehengo astean Donostian, DFOTO argazki eta bideo feriak ateak zabaldu zituen. Ikusminak bultzatuta hara hurbildu nintzen, ea galeriek zer eskaintzen zuten eta ea nondik nora doan gaur egungo argazkilaritzaren berri jasotzeko. Baina ez nuen inongo sorpresarik hartu, horrelako "materiala" ikusita nuen beste argazki festibaletan.

Baina momentuko argazkilaritzaz hitz egin baino lehen, argitu behar dena ere, argazkilari hitza eta artista hitzaren arteko desberdintasuna da. Argazkilaria, berez, argazkiak egiten dituena da bere jarrerak edo sormena adierazteko eta artista aldiz, edozein baliabidez baliatzen da gauza bera egiteko. Honen barruan, edozein teknika eta elementu erabiltzen ditu bere helburua lortzeko. Eta argazkia erabiltzen duenean ere, gehienetan ez du erreparatzen argazkilaritzak bere atzean duen teknika eta pertsonalitatean. Hasteko, edozein argazki balio zaio eta ikuslegoa esplikazio bitxiren batez konbentzitu nahi du, irudiak berez irtenbiderik eta zentzurik ez duela baidakitelako. Argazkilariek euren argazkiak plazaratzen dituzte eta ikuslegoak epaitu egiten ditu bere begiradarekin.

Baina Donostian, galeria gehienek euren artisten azkeneko obrak eraman zituzten salgai jartzeko, gehienak 1 x 1 metroko tamainakoak, agian. Askotan, stand hauetatik pasatzerakoan ez nien ezta segundo bat ere ez argazkiei erreparatzen, ez baitzidaten ezer ere esaten edo iradokitzen. Dagoen panorama salmentakoa da argazkilaritzan eta beti izan da bere gakoa, baina saldu baino lehen ondo egin behar dira etxeko lanak. Onartezina da horrelako irudi puskei argazki deitzea, paper fotografikoan bakarrik ateratako irudi bat izanik. Nire iritziz, denborak, artean gertatu den bezala urteetan zehar, bakoitza bere lekuan jarriko du eta konturatuko dira gaur egun saltzen diren argazki gehienek ez dutela baliorik edukiko, momentuko modaren ondorioz sortu baitira.

**Jokin Martinez**

KeXa k ........................................ 5

MOtZ MOtZ ........................................ 8

gehigarria ........................................ 13

kiRolAk ........................................ 20

2004-IV-23

## Oharra

Joan zen asteko Barrenean, 484. alean, gaizki ulertu baten ondorioz, Gazte Asanbladakoak Mupem enpresa zaharrean zeudela azaldu genuen. Esan digutenez, oraindik ez diote Udalari erantzun bat eman, eta momentuz kalean omen daude. Barkatu eragozpenak.

### PILAR IKASTETXEA "ITXIERA ORAIN"

Gezurra dirudi XXI. mendean egonik, erlijio sektarioek oraindik erreklutamendu egoitzak jendaurrean libreki zabalik edukitzea eta gobernuaren diru-laguntzekin, gainera. Ez ditzagun ahaztu bere gain dituzten delitu guztiak. Hala nola, adingabekoez abusatzea, torturak, biolazioak, harribitxien trafikoa...

Guztiok ezagutzen dugu pertsona hauek adingabekoez abusatzeko duten zaletasuna. Legeak ere hala berretsi zuen 2002. urtean Ipar Amerikan (badirudi gaiztakeriatan harrapatzen dituzten guztiak barkatzen dituztela lehen aldiz harrapatzen dituztenean).

Beraiek izan ziren kultura eta sinismen guztiak desegin zituztenak hemen Euskadin, eta baita mundu guztian ere. Heriotzaraino torturatu zuten edo bizirik erretzen zituzten pertsonak ideia berdinak ez izatearren edo beraiek baino jakintsuagoak zirelako.

Sekta honek burututako milaka delitu salatu litezke, baina alferrikakoa litzateke, orain arte egin izan den legez isilarazi eta epaitegietako artxibategietan gordeko bailituzkete.

Har ezazue exenplutzat duela aste batzuk apaiz batekin Espainian gertatua: hiru urtetako kartzela zigorra murriztu diote eta prestazio sozialetan egin beharreko 1000 orduko zigorrarengatik aldatu diote.

Mesedez, zer irakatsi diezagukete mundua biribila dela duela mende eskas bat onartu duten pertsona batzuek. Edo duela bost urtera arte gizakiaren jatorria onartzen ez zuten pertsonek. Berritu ote dituzte liburuak jadanik?

Proposamen zinez serioa egiteko aprobetxatu gura nuke eskutitz hau:

-Pertsona "non grata" izendapena lehenik sekta honetako buruzagientzat eta herritik kanporatzea ondoren.

-Beraien eraikin guztien desjabetzea.

-Pilar Ikastetxea bota beharko litzateke babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko.

-San Bartolome Parrokia, aparteko arkitektura lana izanik, ardoz eta sagardoz beteriko kupelak eta jangela jartzeko toki ezin hobea litzateke. Hau guzti hau herritarrentzako prezio egokietan eskainiko litzateke, ez bailegoke ondo honekin ere beste negozio bat egitea.

Katoliko guztioi barren barreneko irriparra eskaintzen dizuet. Osasuna eta anarkia. Pilar Ikastetxea "Itxiera orain".

Sergio Fernandez Picon
NAN 15,383.713

# Urruzunoren
## begi ezkutua



### Paris, Paris

Ez zen ez, New Yorkeko 110. streeteko geltokia. Hasteko, hiria bera zeharo ezberdina zen, Paris. Eta Paris, hain parisinoa zen Paris. Horrexegatik, XXII. mendeari zegokion iragarki-taula digital garatu eta berriztatzaile haren aurrean geratu zituen bere oinak. Eta honako hau izkiriatu zuen, hiri haundiek eskaintzen duten anonimotasun-askatasun binomioaren babesean babestuz: "itsasoak ez du esperantzarik, itsasoak isurtzen dituen olatu guztiak ezberdinak direlako . ." Eta horrelaxe bukatu zuen, hiru eten-puntu eta guzti. Eta puntu haiei begira geratu zen, geldi. Hiru ziren, hirurak borobilak, irregularrak, inperfektuak. Eta puntu haien barruan olatuak somatu zituen. Kostalderaino iristen ziren olatuak eta ahaleginean desegiten zirenak, ahaleginean desagertzen zirenak. Eta azken gogoeta honek bere barrua asaldatu zuen bapatean, amets gaiztoek egiten duten moduan. Eta nahigabe batek inguratu zuen bere bihotza. Bi aldiz pentsatu gabe ezabatu egiten zituen, eten-puntuak, hirurak. "Hobe horrela" pentsatu zuen. Eskuak poltsikoan sartu, burua berokiaren lepoan ezkutatu eta bere bidean jarraitu zuen.

Eguzkiñe Aranherri

nRIA

BaRR.AeTE"

Nalarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
v 943 74 41 12
Publizitatea:
v 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barrenelopaguneaoom
Helbido informatikoa:
www.topagunea.cornibarren
ARGUARATZAILEA
Elgotbarko Izarra

ILCOIBARK0

LOGUMIAILEI. Elgoibarko Udala KOORDINATIAILtA Ainhoa And011egii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATTAILEA Jaione Unanue GIRIMTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAR Ja5bIle 050[0, Ainhea Lodoso, Nestor Fuente, Pelto Mendizabal, Edurne Bithao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Anegt, Juanito Gorostiza, Kokoa K.E. eta Urruzuno L.T.. AYALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburulik INP/MATEGIA Gertu Koop. E. TIRAbA 4.1 75 ale LEGE GORDAILVA SS-1.0313/92 ISSN 1139-11355

*Elgoibarko tidalak, Easko Jaurlarkzako Kubura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aidizkuria.*

rei kutxa
zuri Ilker

1DANOBAT
11A011114. HERRA11.1,

SNGOITI
GRUPG PANORAT

gfiatitTA

## unx



• Herriko emakume batek honako kexa ekarri digu: **San Frantzisko 52an etxe berria egiten dihardute, eta fatxada gainontzeko etxeak baino kanporago atera omen dute:** "Bernardo Ezenarro kalera ematen duen fatxada zergatik atera dute beste etxeena baino kanporago? Benetan zatar eta aldrebes geratzen dala uste dot, eta aukera paregabia galdu da inguru hori behin betikoz itxuratzeko".

• Joan zen astean, **Barreneko 484. alean kaleratu genuen kexa bati erantzunez,** emakume batek ondorengoa azaldu digu: "San **Bartolome eta Errosario kaleko etxeen arteko karkabian ez dago arratoirik.** Urte mordoa daramatzat bertan bizitzen, eta egia da garai batean arratoiak ikusten zirela, baina gaur egun katuak daudenez, ez dago arratoirik. Udaletxekoak astean behin pasatzen dira garbitzera, eta egia da, batzutan ez direla etortzen. Agian gehiagotan garbitu beharko lukete, baina argi geratu dadila ez garela arratoi artean bizi!".

• Gazte talde batek esan digunez, **Urasandiko U-a apurtuta dago: "Jende asko ibiltzen da panitenean, eta honetarako bereziki prestatutako herriko toki bakarra apurtuta dago.** Denbora ugari darama horrela, askotan kexatu gara eta ez digute kasurik egiten. Askotan erortzen gara zuloan trabatuta, eta min hartzen dugu. Bada Urasandiko U-a konpontzeko ordua".



♦ Herritar asko azaldu zaizkigu **Madalako errotondari buruzko kexak azaltzera. Auto gidariek ez dute ulertzen zergatik onartu zuen Udalak honelako proiektua: "Azpeitian** honelako errotondak egin eta urtebete pasa ostean errotonda borobilak egin behar izan zituzten, erdibitutako errotondak arazo mordoa sortzen zituelako. Hain gertu honelako esperientzia izanik, nolatan egin dute Madalan honelako errotonda bat? Trafikorik ez dagoenean ere, itxaron egin behar izaten da, eta askotan, semaforoa berde egon arren, beste aldean kotxe ilara handia dagoelako zain egon behar da. Txapuza bat da".



**Igor Barrutia,** SALBAMENDURAKO TXAKURREN HEZITZAILEA

# "Salbamendurako txakurrak



***Salbamendurako Txakurren Euskadiko Taldea 1979. urteon sortu zen. Gaur egun Elorrion dauka egoitza, eta guztira 19 lagun inguruk osatzen dute. Zaletasun bera zeukan lagun talde batek sortutako toldea da. Zaletasun hori txakurrak trebatzea da. Igor Barrutia elgolbartarrarl ere izugarri gustatzen zaizkio txakurrak, eta duela hiru urte sartu zen talde honetan. Aste Santuan Elgoibarko Alba Fundizio zaharrean egin ziren Salbamendurako Txakurren Hornologaziorako X. Probak, eta joan zen asteburuan, txakurrak entrenatzen aritu dira. Txakurrek biktimak bilatzen zituzten bitartean, Igor Barrutlarekin hitz egiteko aukera izan genuen, eta berak kontatu dizkigu salbamendurako txakurren nondik norakoak.***

**Nola hasi zinen honetan?**

Txakurrak trebatzeko zaletasunak bultzatuta hasi nintzen. Beti gustatu zaizkit txakurrak eta Salbamendurako Txakurren Euskadiko Taldearekin harremanetan jarri nintzen. Elorriora joaten hasi nintzen, eta dagoeneko hiru urte pasatu dira.

**Edozein izan al daiteke taldeko partaide?**

Bai, txakurra daukan edonork hartu dezake parte, baina txakurra trebatu ostean, baldintza hau ezartzen dugu. Askotan, txakurra trebatu ostean, alde egiten du jendeak, eta gure helburua salbamendurako txakurrak trebatzea da. Denbora asko behar da txakurrak trebatzeko, eta ezin dugu denbora alperrik galdu.

## "Guk erabiltzen ditugun txakur gehienak artzain txakurrak dira

**Nola entrenatzen dira txakurrak?**

Txakurrak biktima bilatu behar du. Biktimak toki desberdinetan ezkutatzen dira, txakurrari bidea erakusten zaio, eta usaimenaren bidez aurkitu behar ditu.

**Edozein bcakur arrazak balio al du salbamendurako?**

Guk erabiltzen ditugun gehienak artzain txakurrak dira. Euskal artzain txakurrak, artzain alemaniarrak, artzain belgak...

**Zer dira hobeak, arrak ala emeok?**

Berdin da. Ondo entrenatuz gero, edozeinek balio du. Nire txakurra emea da, eta oso gustura nago.

**Zenbat denbora behar da txakur bat entrenatzeko?**

Astean bi aldiz izaten ditugu entrenamenduak. Asteazkenetan Elorrioko egoitzan egiten ditugu, eta larunbatetan hondakin artean, edota espazio irekietan entrenatzen ditugu. Honetaz gain, bakoitzak bere aldetik trebatu behar du txakurra. Etengabeko lana da. Gutxi gora behera bi urte behar dira txakurra ondo trebatzeko.

**Zein ezaugarri dituzte salbamendurako txakurrek?**

Ez daukate ezaugarri berezirik, usaimena eta entzumena erabiltzeko entrenatzen dira. Zenbat eta gehiago entrenatu, beraiek usaimena gehiago erabiltzen ikasten dute.

**Nola atera ziren Alba Fundizioan eginiko Homologazio probak?**

Oso ondo, esperotako emaitzak lortu genituen, 6 txakurrek hartu zuten parte, eta hiruk dena gainditu zuten. Beste bi txakurrek ez zuten proba pasatu, baina jahea izan zen kasu honetan proba suspenditu zuena. Talde lana da, txakurrak ondo aritu ziren, baina ezin izan zuten proba gainditu.

**Zergatik aukeratu zenuten Elgoibarko Alba Fundizioa?**

Arazoak izaten ditugu honelako tokiak aurkitzeko. Txakurrak hondakinetan

# rebatzea etengabeko lana da"



trebatzeko toki aproposa iruditu zitzaidan. Hondakinik ez daukagunean, harrobietan ibiltzen gara.

Zenbatean behin pasatu behar dituzte txakurrek honelako probak?

Homologazioak bi urteko iraupena dauka, baina guk urtero pasatzea eskatzen diogu txakurrari.

**Salbamendu garranfzitsuren baten ibili al zara?**

Martxoan Gasteiz inguruan zuhaitz batetatik zintzilikatuta bere buruaz beste egin zuen mutil baten bila aritu ginen, baina ez genuen aurkitu. Mendian zebilen norbaitek ikusi omen zuen, eta Ertzantzari eman zion abisua, baina ez zuen tokia zehaztu. Pare bat egun beranduago agertu zen, gu ibili ginen tokitik 15 kilometrora.

Biktimak bilatzeko, beraien objektu pertsonaletaz baliatzen al zarete?

Guri biktima galdu den tokia azaltzen digute, eta txakurren usaimenaz baliatuz saiatzen gara bilatzen. Janzkera, eta biktimaren ezaugarri batzuk ematen dizkigute, eta gutxi gora behera zer gertatu den kontatzen digute. Honelakoetan garrantzitsuena zonaldea deskartatzea da, hau da, nahiz eta biktima ez bilatu, zein zonaldetan ez dagoen esaten dugu, gainontzekoen lana errazteko.

**Nola antolatzen dira salbamenduak?**

Guri SOS Deiak-etik deitzen digute. Partikularren batek ere deitu ahal digu, senitartekoren bat galdu duela esateko adibidez, baina guk beti SOS Deiak-era pasatzen dugu gero abisua.

**lan honetan aritzen zaretenok uneoro lanean hasteko prest egon behar al duzue?**

Gure taldean denak boluntarioak gara. Hiru lagunek bilagailu bat daukate, eta deia jasotzen dutenean jartzen da taldea martxan. Niretzako zaletasun bat da. Astean zehar lan egiten dut, eta printzipioz asteburuetan laguntzeko prest nago. Beharrezkoa denean, lanean baimena eskatzen dugu.

Drogak bilatzeko erabiltzen dituzten txakurrekin zerikusirik ba al dute txakur hauek?

Bai, azken finean berdinak dira, entrenamendua izaten da desberdina.

## ],xakurren trebatzea

Txakur bat edukitzeko erabakia hartzean, zenbait galdera erantzun behar dira aukeraketa egokia egiteko:

Nire txakurra nolakoa izatea nahi dut?
Zein ianetarako prestatzea nahi dut?
Zenbat denbora eskaini ahal diot txakurrari?
Noiakoa naz, zein zaietasun dauzkat?
Non biziko da nire txakurra?

Gaidera hauek erantzun ostean, arraza konkretu bat aukeratuko da. Ezaugarriak kontuan izanik aukeratuko da txakurra, eta ez polita delako bakarrik.
Txakurrak ondo lan egin dezan, harreman ono eduki behar da berarekin. Txakurra biziko den ingurunera egokitu behar da, txakur jatorra izatea ezinbestekoa da.



# Izartu programaren barnen Udalak bi errotonda egiteko asmoa dauka 012891M

## 2.072.340 euroko aurrekontua dauka proiektuak

Elgoibarko Udalak 1.036.170 euroko dirulaguntza eskaera egin dio Eusko Jaurlaritzari Izartu programaren barnean, Olaso auzoan bi errotonda egiteko. Eusko Jaurlaritzak eskaera onartuko balu, gainontzeko dirua Elgoibarko Udalak, edo beste erakunderen batek jarri beharko 1uke. Proiektua onartzen bada, Elgoibarko Udalak 2006rako amaitzea aurreikusten du.

Izartu Programa ingurune zaharkituak eta azpiegitura desegokiak dituzten herrietako udaletxeei laguntzak emateko Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen programa da. Sigma auzoa ingurune degradatutzat jo zuen Jaurlaritzak, eta proiektu honekin, bertako bizilagunen egoera hobetu nahi da.



*Argazkian ageri den tokian egingo dute errotondo bat.*

### Hobekuntzak

AIde batetik Olaso industrigunetik N-634 errepiderako irteera hobetu nahi da. Era berean, errepidetik Sigmako etxeetarako sarbidea hobetuko da, eta aparkaleku gehiago egiteko asmoa dago.

### Bi errotonda eta karril bat

Lehenengo errotonda N-634 errepidea eta Olaso Industrigunea Iotzen dituen bidegurutzean egingo da. Bigarrena, Sigmako zubiaren parean eraikiko **da.** Azkenik, bi norabidetako karril bat egingo da Sigmako etxeetatik lehenengo errotondaraino, Sigmako auzokideak arriskurik gabe errepidera atera ahal izateko.

# Ufaletatik babesteko eta ibaia garbitzeko lanak inauguratu dira

## Proiektuak 25.616,000 euroko kostua izango du



*Agintariak* ***zinta mozketa ekitaldian.***

abin Intxaurraga Euskal Autonomi 1.3Erkidegoko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa sailburuak, ufaletatik babesteko eta ibaiaren saneamenduaren alorreko Ianak inauguratu zituen joan zen asteazkenean, hilaren 21ean.

### Helburu bikoitza

Jarduera honek dimentsio bikoitza izan zuen: Lehenik Gipuzkoako Foru Aldundia Elgoibarren eraikitzen ari den hondakin uren araztegia eta Maltzagaren arteko biltzailea aipatu behar dira. Proiektu honek 10.606.000 euroko kostua izan du. Dirutza hau erdibana ordaindu dute Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Uren Partzuergoak. Maltzaga-Eibar biltzailea amaitzear da, eta laster hasiko dira Eibar-Ermua arteko biltzailearen lanak, Guztira 11.630.000 euroko kostua izango dute.

Lan hauen bigarren helburua Elgoibarko hiriguneak pairatu ohi duen uholde arriskua murriztea da. Goiko Errotako zubian eta San Pedro auzoan hobetze lanak egin ostean, ibalaren hustutze gaitasuna hobetuko duten beste lan batzuk burutu dira: besteak beste, Melitongo presa eta merkatua eta King-Kong-eko zubia lotzen dituen oinezkoentzako pasabidea bota egin dira, eta Sigman zubi berria egin da. Azken jarduera hauek Ingurumen eta Lurralde Antolaketa sallak ordaindu ditu, eta 3.380.000 euroko kostua izan dute.

Abian dauden lan horien guztien amaierak nabarmen hobetuko du Deba ibaiaren osasuna.

## Ahate familia batek Elgoibarko terraza batean aurkitu du bizilekua



Pedro Muguruza Etorbideko 11. zenbakian, ahate familia bat azaldu zen duela pare bat aste. Pedro Garate eta Lucia Elorza bazkaltzen ari zirela, ahate familia bat ikusi zuten beraien etxeko terrazan. Erabat harrituta geratu ziren, ahate ama eta bere 10 ahatekumeak ikustean. Kontatu digutenez, 5 ahatekume hil egin dira, baina gainontzekoak oso ondo omen daude. Pedro eta Luciak jaten ematen diete, pentsua, txitxarak, ogia, letxuga eta terrazako hustubidea itxiz, bainua hartzeko piztina ere sortzen zaie terrazan. Luciak esan digunez, hasieran beldurtuta zeuden ahateak, baina orain terrazara ateratzen direnean, hanketara hurbiltzen zaizkie. Animaliak Babesteko Elkartetik ere, eskerrak emateko deitu dietela kontatu digute.

## IMHko Ingeniaritzako lehenengo mailako ikasleek bizikidetasunerako mintegia egin dute Kantabrian

Ingeniaritzako zortzigarren promozioko ikasleek San Vicente de la Barqueran bizikidetasunerako mintegia egin dute astebetez. Bertan, ekitaldi eta jarduera desberdinak egiteko aukera izan dute, besteak beste, Altamira bisitatu, piraguan ibili eta paintball-ean jokatu dute. Mintegiari amaiera emateko, Lasturren kapea bat egin zuten.

Mintegi honen helburua, alde batetik, beraien prestakuntzari buruzko balantzea egin eta hobekuntza ekintzak proposatzea izan da, eta bestalde, proiektu bat gestionatuz, taldeko elkarren harremanetako dinamika indartzea.





## Merkatu plazako zozketako irabazleak

Merkatu Plazako dendariek lbai Ondo jatetxerako bi lagunentzako bi afari zozketatu dituzte hilabete honetan, eta Visitacion Garate eta Celia Juaristi izan dira irabazleak. Visitacion Garate ezin izan zen saria jasotzera agertu, eta bere ordez, Eloisa Irureta ageri da argazkian. Zorionak!

## Udalak 13.341 euroko laguntza jasoko du herriko merkataritza aztertzeko

Eusko Jaurlaritzako Industria, Komertzio eta Turismo Sailak 13.341 euroko laguntza emango dio Elgoibarko Udalari herriko komertzioa indarberritzeko proiektua martxan jartzeko. Dirulaguntza honekin proiektuaren %75a finantzatuko da, gutxi gora behera. Proiektu honen helburua, herriko komertzioen ikerketa egin, eta etorkizunerako erronka berriak aurreikustea da.

Proiektua gauzatuko duen enpresak Elgoibarko ingurune komenzialaren ikerketa sakona egingo du, eta erosleen ezaugarriak aztertuko ditu. Datu hauekin guztiekin, herriko komertzioaren diagnosia egin eta etorkizunerako proposamenak kaleratuko ditu.

## Elgoibarko EAJk Uri Buru Batzar berria aurkeztu du

EAJk Elgoibarko Uri Buru Batzar Berria osatzen dutenen zerrenda aurkeztu du: Affredo Etxeberria Murua (lehendakaria), Mari Jose Zubiaurre Leiaristi (Diruzaina), Isaac Loiola Zabala, Juan Mari Eguren Iriondo, Mari Ezenarro Gorostidi, Miren Lourdes Arozena Usobiaga, Eloisa Zubiaurre Ansola eta Kepa Mendikute Agirregomezkorta (idazkaria).



*I. URTEURRENA*
*2003ko apirilaren 27an, 80 urte zituela hil zen*
*SECUN ARKAUZ MURGIONDOren oroimenez*
*URTEURRE1VEKO MEZA izango da*
*'ea, hilak 25, goizeko 10:30ean San Bartolome Parrokian.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*

# Inkesta

2004-IV-23

Gaur, hilak 23, liburuaren Naizoarteko Eguna ospatzen da. Euskaldunon %42ak egunero irakurtzen omen du nobela edo entsaioren hat

## BA AL DAUKAZU IRAKURTZEHO 01111TURARIK?



### ASIER GURRUTXAGA

**35 urte, elektrizista**

Zerbait irakurtzeko ohitura badaukat, baina ez gehiegi. Egunkaria egunero irakurtzen dut, eta beti daukat libururen bat mesanotxe gainean, baina ahal dudanean irakurtzen dut.

### IKER EPELOE

**28 urte, dendaria**

Liburuak irakurtzeko denborarik ez daukat, eta ohitura ere, aspaldi galdu nuen. Egunkaria egunero irakurtzen dut, eta ostiraletan Barren-a ere bai.






### ANA MARI GUTIERREZ

**29 urte, utne zaintzailea**

Ez. Egia esanda ez zait irakurtzea gustatzen, nahiago dut beste gauza batzuk egitea. Noizean behin aldizkariren bat irakurtzen dut, baina oso gutxi.

### ANDONIKIE ZUBIKARAI

**35 urte, irakaslea**

Bai, gauez irakurtzen dut batez ere, eta oporretan gehiago. Euskarazko eta gaztelerazko liburuak tartekatzea gustatzen zait. Batzutan neure burua derrigortzen dut irakurtzera





### MARI JOSE MORENO

**38 urte, etxekoandrea**

Azkenaldian ez daukat irakurtzeko denborarik, baina lehen irakurtzen nuen. Intrigazko nobelak gustatzen zaizkit batez ere, engantxatu egiten dutenak.

### ASIER OBRIOZOLA

**9 urte, ikaslea**

Bai, atzo bukatu naban liburu bat, "La flor amarilla". Ikastolan agintzen digutenaz aparte ere irakurtzen dot. Egunero irakurtzeko ohitxuria dakat.



karlizano

San Frantrisko, 14 — Tel. 943 74 05 49

Arrieta

San Bartolome, 18

Tel. 943 74 08 49

«IOSE

(Txema)

- Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, rnoketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

## Tianjin Proiektuko txinatar zuzendarien prestakuntza amaitu da

Pasa den apirilaren 6an, CSM Tianjin Institutuko zuzendaritza taldeari agurra egin zitzaion Elgoibarko Kultur Etxean. Txinatar zuzendariek plan estrategikoa, gestio plana, zuzendaritza gaitasunak eta erabateko kalitatearen kudeaketarako erremintak ikasi dituzte besteak beste hilabete batean. Proiektu honen lidergoa Proschools-ek darama eta helburua, Tianjin Ikastetxe Teknikoa handitzea, egokitzea eta Prestakuntza Iraunkorreko saila martxan jartzea da.



Beraien egonaldian euskal erakunde ofizialak eta makina erremintaren sektoreko fabrikatzaile desberdinak bisitatu dituzte. Agur ekitaldian IMHko eta Proschools-eko zuzendariek beraien egonaldiaren oroigarriak eta diplomak banatu zizkieten txinatar zuzendariei. Talde honekin IMHn egindako prestakuntzaren hirugarren fasea bukatu da.

Tianjineko CSM Institutua joan zen abenduan inauguratu zen, eta bertako zuzendariak luzatutako gonbidapenari erantzunez, IMHko ordezkariek Txinako ikastetxeak antolatu dituen nazioarteko jardunaldietan parte hartuko dute hilabete honetan.

## Eibarko Armeria eskolak proiektu teknologikoen lehiaketaren 10. edizioa antolatu du

Armeria Eskolak DBHko ikasleentzat proiektu teknologikoen lehiaketaren hirugarren edizioa martxan jarri du. Txapelketa honetan, Debabarrena, Debagoiena, Lea Artibai, Durangaldea eta Urola Erdiko ikasle guztiek hartu dezakete parte, eta maketak aurkezteko epea, maiatzaren I 5ean amaituko da. Sari hauen helburu nagusia, ikasketa ziklo honen azkenengo fasean heziketa teknologikoa bultzatzea da.

Lehiaketa honek, bi sari banatuko ditu: lehenengo sarituak, 1.500 , trofeoa eta diploma jasoko du. Bigarrenak, aldiz, 900 trofeoa eta diploma.

## Ume asko ibili da Atxutxiamaikak Aste Santurako antolatutako ekintzetan



Atxutxiamaikak antolatuta Aste Santuan hiru ekintza desberdin izan dira; Udaleku irekiak, Udaleku itxiak Aubixan eta Txuri Urdinera irteera. Guztira 64 ume eta 9 begiralek parte hartu dute. 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat udaleku irekiak izan ziren apirilaren I3tik 16ra. Guztira 16 ikasle bildu ziren, eta besteak beste, eskulanak eta mozorroak egin zituzten. Apirilaren 17an, Txuri Urdinera egin zuten irteera. LHko 27 lagun joan ziren lau begiralerekin. Eguna Donostian eman zuten, eta gaueko 21:00etan itzuli ziren trenez etxera. Azkenik, Aubixan eginiko udaleku itxietan 21 lagun izan ziren. Apirilaren 13tik 17ra iraun zuen egonaldiak, eta ekintza desberdinak egin zituzten: Arratera irteera, herri kirolak, ur jolasak...

Orokorrean ekintza guztiak ondo atera direla kontatu digute, eta Atxutxiamaiako arduradunak gustura azaldu dira Aste Santuan izan duten harrerarekin.

## TxotKongilo emanaldia ikusgai hilaren 30ean




Kiribilka programaren bamean, "Lau anaia umezurtzak" txotxongilo emanaldia izango da datorren apirilaren 30ean Plaza Handian. Arratsaldeko 17:30ean hasita, titere, txotxongilo edo kurrinoen munduan bameratzeko aukera izango dute beraz, etxeko txikienek. Lau anaia umezurtzen istorioa kontatuko digute Irrintzi taldekoek, Lau anaia bizi diren baserria gainbehera doa, eta bakoitza lanbide berri bana ikastera behartuta dago. Gazteluko printzesa, Ohianeder, asperturik dago, eta herensugearen bisitaldia izango du. Hortik aurrera emozio, sentiberatasun eta akziozko antzezpena garatuko da.

## Herri Eskolakoek San Pedro-San Pedro hira

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, San Pedro-San Pedro bira egin zuten joan zen apirilaren 4an Herri Eskolako ikasle eta gurasoek. 60 lagun inguru bildu ziren, eta goiz zoragania pasatu zutela kontatu digute. Bertako aparkalekutik abiatuz, Hiruiturrirantz joan ziren. Ondoren, Kalamuarako bidea hartuta, baina mendi tontorra eskuin aldean utzita aurrerantz jarraitu zuten. Garagoitxi eta Akondia atzean utziz, Aitzketako leporaino iritsi ziren. Aitzketako gailurrean hamaiketakoa egin ostean, Arrate alDera joan ziren, eta handik San Pedrora itzuli ziren. Hurrengo irteera maiatzaren 2an izango da. Txikiak Kalamuara joango dira eta nagusiak Gorbeara.



2004-IV- 23

## LOPEZ Gozotegia



Cristina Bergua

**"Umiek gominolak nahixo ditxue eta karameluak jende nagusixak"**

Gozozaka al zara?
Ez naiz oso gozozalea.
Gosaitzeko napolitana ala kruasana?
Napolitana, txokolatea duelako, baina aukeran nahiago dut Mueslia esne edo jogurtarekin.
Aukeran: gozoa, gazia ala garratza?
Momentuaren eta gorputzak eskatzen duenaren arabera, hiruretako edozein, orain, gehienbat gauza gazietara jotzen det, fruitu Iehorrak.
Goxoktak ala gominolak?
Nik neuk goxokiak. Gero umiek oro har gominolak eta jende nagusixauak karameluak.
Bizipen gozo bat?
Gozoak asko ditutx. Esaterako, bibliotekonomia eta dokumentazio karreria bukatu nuanekoa.
Zer osagai hehar ditu bizitzak goxoagoa izan dadin?
Oro har, alaiagoak izatea.
Zer saltzen da gehien?
Modaren arabera, gauza bat edo beste. Momentu hontan, haurren artean, pipak, "Papadelta", "Gublins" eta antzekuak. Telebistan agertzen den guztiak erakartzen du jendia eta horren bila datoz hona.
Urteko zein garaitan izaten duzu lan gehien?
Gehienbat jai egun, festa eta astebukaeretan eta bereziki, uda aldean, uztailean eta abuztuan.
Zer da bebarrezkoa bezeroak gustura edukitzeko?
Hemen pazientzia pila bat.
Heiduak haurrak beste gozozale al dira?
Bai. Batez ere, eztarria gaizki duten aitzakia erabiliz lehenengo karameluetara jotzen dute, baina gero beti pikatzen dute beste zerbait.
Zein adinetako,jendea da benrorik fidelena?
Gazteenak, sei urtetik hamabost urte bitartekoak.
Mendaroko txokolatea, Tolosako tejak tteilak eta Eigoibarko... :
Hojaldre edo rellenuak.
Zenhat denhora daramazu lanhide honetan?
Urtebete egingo det datorren hilabetean.
EIxean izan al duzue heste goxoki saltzailerik?
Ez. Niretzat ere, sorpresa izan da hau.
butiz dastatu duzun gozo arramena?
Bergenen (Noruegan) probatu naban arrosa koloreko pastel bitxi bat.

Esther Gurrutxago



*I. URTEURRENA*
*2003ko apirilaren 22an, 63 urte zituela hil zen*
*SATUR VIÑARAS DE PABLOren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da*
*larunbata, hilak 24, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



KiliBaRRen

2004ko opirilaren 23o/XII. urlea/105 z

# Hukan taidearen eskutik dantza, trikitixa eta herlIsolaritza izango da datorren larunbatean

## Ikuskizuna aintzinako ikuztegi batean garatzen da

Mendaroko Udalak antolatuta, datorren apirilaren 24an, gaueko hamarretan, Xukan taldeak, dantza, trikitixa eta bertsolaritza uztartzen dituen "Iturrian zer dago?" ikuskizuna taularatulco du. Bertan, elementu hauen bakarkako emanaldiak eta hiruen arteko nahasteak gertatzen dira. Garrantzitsua da aipatzea ikuskizuna dohainik izango dela.

"Iturrian zer dago?" ikuskizuna aintzinako ikuztegi batean gertatzen den sedukzio artistikoa da. Bertan arropak garbitzera joan diren ama-alabak egingo dute topo, eta baserritik, ferira bidean, muturra berotu ondoren ur tragoska bat egitea doazen aita-semeak.

Bertsolarien bapatekotasunaren gidaritzapean, istorioak bere bidea egingo du, bi taldeen arteko sedukzio eta maitasun jolasak tarteko. Bertsolariek bapatean gauzak ezberdin kontatzeko duten trebetasunak ahalbideratzen du, istorioa beti berdin hasi eta berdin ez amaitzea.



Ohiko fandango eta arin-arinei, koreografia berriak eta gainerako erritmo ezagunak erantsiko dizkiete dantzariek: tangoa, balsa... baina beti ere nagusiki euskal dantzetan oinarrituta. Honela, mutil eta nesken arteko sedukzio jolasak, era bitxi eta egoki batean erabiliz, bertsolari eta trikitilariekin uztartzen dira.

# Santa Ana jaiak antolatzeko 46.000 euro erabaliko dira

¡rNrain dela egun gutxi Mendaroko letxean bilera bat egin zen herriko zaindariaren jaiak antolatzeko. Aurtengo Santa Ana jaiak ospatzeko 46.000 euro erabiltzea erabaki da, aurreko urteko aurrekontuaren antzera.

Bileran Aingeru Gallastegi Kulturako zinegotzia eta Nerea Larrafiaga kultura arduraduna egoteaz gain, hainbat gazte hurbildu ziren jaietarako ekintzak iradokiz: sokamuturra egun batzutan zehar, kontzertuak, antzerkiak. Jaiak antolatzeko lehenengo pausoa besterik ez zen izan, horregatik, oraindik hilabete batzuk geratzen direla jakinik, Udalak herritarren ekarpenak entzun nahi ditu, gazteenak batez ere.



Santa Ana jaiak ospatzeko egunak zehaztu ez badira ere uztailak 23-26 bitartean izan daitezke.

# Malatzaren 7a baino lehen aukeratuko dira "Familia euskaldunetan egonaldiak" programan parie harfu nahi duten familiak

Familia euskaldun batekin uda igarotzea euskara ikasteko modurik egokiena dela esaten dute. Hori dela eta "famila euskaldunetan egonaldiak" programaren bidez, euskara ikasten ari diren ikasleak mendarotar familiekin denboraldiak igaro ditzaten bultzatu nahi da. Honako baldintzak bete beharko dituzte familiek: lehenik, biztanlegoaren %70etik gora euskalduna duten udalerrietako zein auzoetako batean bizi izatea; bigarrenik, egonaldia eskaintzen den hilabetean, familian gutxienez him kide bizi izatea eta kide guztien arteko ohiko komunikazio hizkuntza euskara izatea. Egonaldiak hilabetekoak izango dira gutxienez eta egonaldi bakoitzeko ikasle bat besterik ezingo dute hartu. ikasle hauek hartzeko familia hautagai gisa onartuak izan diren familiek 2004ko maiatzaren 7a baino lehen antolatzaileen berri izango dute. Kobrantzak: hilabeteko egonaldi bakoitzeko 570 euro izango da.

# Erritmo onean doaz Azpilgoeta sarbideko obrak

Martxoan hasi ziren Azpilgoeta sarbideko obrak N-634 errepidetik eta Bilbora joateko norabide bakarra egongo da obrak amaitzean. Bestalde, autobus geltokiak ere hobekuntza nabarmenak jasango ditu. 117.480 ko aurrekontuaz, Maquinaria Alavesa arduratuko da obra hau egiteaz eta 2 hilabeteko lana izango dutela iragarri zuten. Baldintza onean geratuko da errepidea eta trafiko mugimendu handia izango du.

KiliBaRRen
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# EDURNE OLAZABAL, Begiralea

*5-6 uda pasa dira Mendaron lehenengo udaleku irekiak antolatu zirenetik eta aurten udaleku eta gabonlekuak ekintza sokeak izan ez daitezen, 1n Leike elkartearen barruan begirale taldea sortu da urte guztian zehar haurrenizako ekintzak antdatzeko. 8 neska dira guztira eta hilean pare bat aldiz elkartzen dira haurrentzako ekintzak behar bezala prestatuta izateko. Urte guztiko ekiniza mulizoari TRIKIXAPO 2004 izena jarri dio begirale taldeak: martxoan eskulanak eta tailerrak izan ziren, datorren larunbatean Txurlurdinera abiafuko dira izotz gainean irristatzera, maiaizean euskal olinpiadak ospatuko dituzte..*
*Begirale taldeko Edurne Olazabalekin egon gara eta urriararte prestatu dituzten ekinizen berri eman digu.*



## "Larunhat arratsaidetan ume asko ikusten dia bankuan eserita goxokiak jaten, ez dia ikusten lehengo jolasak"

# "Hasi jolasten e

**Noiz sortu zen Mendaron begirale taldea?**
Udaletzetik proposau ziguten urte guztirako umien ekintzak prestatzeko talde bat sortzea In Leike barruan. Begirale taldia aurten sortutako talde bat da, gabonlekuen ondoren sortu zan ideia bat izan zan eta oin 8 neskek osatzen degu taldia. Begirale taldekuen gehiengua, Mendaroko udalekuetan egon gera, batzuk oin dala urtebete, beste batzuk oin dala bi urte... izan ere udalekuak oin dala 5-6 urte hasi zian antolatzen. Hilabetian behin edo bitan elkartzen gera ekintzak autolatzeko.

**Zenbat umek hartzen dute parte zuen ekintzetan?**
Ikastolan 3 urtetik gora 80 haur inguru daude denera. Gabonlekuak prestatu genitunian 36 haur hurbildu zian eta udalekuetan 55 inguru apuntatzen dira normalian.

**Nolakoak izaten dira udalekuak?**
Uztaileko lehenengo 3 astetan izaten dira, Mendaroko jaixen bizperararte. Normalian, bi taldetan banatzen dia haurrak, txikixak alde batetik eta zaharraguak bestetik. 3 urtetik-5 urterako umiak ikastolan egoten dia, kanpoko patixua aprobetxatuz. Normalian, hauen irteerak Mendaroko auzoren batera edo kulunpixuak daozen beste auzo batera izaten dia, ezin gera oso urruti jun 10etatik 12,30ak arte izaten dalako udaleku ireki hauen ordutegixa. Handixekin, 10etatik 13ak arte izaten da eta plaiara juten gera edo azken bi egunetan akanpada itxen da Santakutzen. Bestalde, udalekuen barruan patinajea, tenisa eta eskupilota itxen dia.

**Urte osorako hainbat ekintza antolatu dituzue, ezta?**
Bai, 6 ekintza prestatu ditxugu. Lehengua martxuan izan zan, eskulanak eta tailerrak, San Jose egunian. Guztira 5 tailer egon zian: gatzan tailerra, llaberuak itxeko beste bat, pintzak, txikixentzak marrazteko tailerra eta azkena, aurpegia eta ilia pintatzekua. Uste baino jende gehiago animatu zan, ondo jun zan. Oin, zapatu hontan, Txuri Urdinera guaz patinatzera eta itxuria dexente haur apuntau da. 14,30etan trenian jungo gera Donostiara eta 16:00etan iritsiko gera Txuri Urdinera eta 20:00etan buelta, zein baino zein azkarro ibiltzen dia hauek patinen gainian!
Maiatzian euskal olinpiadak egingo ditugu eta ekainian Sankakutzera juteko asmua daukagu, euskal jolasak eta merendola txiki bat itxeko. Gurasuei ere inbitatzen zaie arratsalde honetara.
Gero, ekainetik urrira salto handixa in degu tartian udalekuak daudelako, baina urrian umientzako ekintzaren bat ekartzia pentsatzen degu: antzerki, txontxongilo..oindik zehaztu gabe daukagu. Eta azaroan, kromoak, txapak..jolas zaharrak direnak.

# :a ni beste umetto bat naiz"

**22 urteko gazte batek izan duen haurtzaroa eta gaur egongo ume batek duena oso desberdina al da?**
Gu sokasaltuan, goman ibiltzen ginan eta ointxe ez dezu kalian hori ikusten. Euskal jolasen kursilora jun ginanian, 17-18 urtekuek gometako jolasak etzakiben. Neri horrek asko txokatzen dia, gu bizi osua gomatan ibili gera, faroletan katiau eta hala! Gaur egungo umiek ere ez dakit ezagutuko daben! Kromuekin ere antzera... asko aldatu dia jolasak.
3-4 urteko aldia izan arren, diferentzia handixak daoz jolasetan. Larunbat arratsaldetan ume asko ikusten dia bankuan eserita goxokixak jaten, ez dia ikusten lehengo jolasak.

**Jolasen bidez euskara bultzatu nahi al da?**
Guk hor bereziki ez daukagu arazorik, ume danak, nahiz eta gurasuak erdaldunak euki, ikastolan euskaraz bakarrik itxen dabenez, hemen dauden bitxartian ere euskaraz itxen dabe. Adibidez, oin dala gutxi Marokotik ume batzuk etorri zian eta euskaraz itxen dute arazorik gabe. Guk ez daukagu euskara bultzatu beharrik, hemen mundu guztixa euskaraz aritzen dalako.

## "Lehen undekin ez nintian bapez ibtzen, hortxe zeuden eta punton

**Datorren urtean ere begirale taldea mantentzeko asmorik ba al da?**
Begirale taldia jarraipen bat izateko sortu zan, umien aldetik oso jarrera positibua dau eta horregatik aurrera jarraituko degu. Gabonlekuetan zaharrenei esan genien ekintza hauek antolatzeko asmua zakagula eta interesa dauala igertzen da, kaletik guazenian ekintzak noiz dauden galdetzen digute.

**Zer da umeek eskaini dizutena?**
Ni lehen umiekin ez nintzan bapez ibiltzen, hortxe zeuden eta punto.Oin ordia, honetan hasi eta pila bat jaso det umiengandik. Hasi jolasten eta ni beste umetxo bat naiz, oso gustora nabil.

**Zein izaten da gurasoen erantzuna horrelako ekintzak antolatzen dituzuenean?**
Holako ekintzak berriz itxeko esaten digute, beraien umiak ekarriko ditxuztela. Gainera, gurasoetako batzuk ia abuztuan udalekuak ez ditxugun in bihar galdetzen digute. Erantzun oso ona dau orokorrian.

## irybriIci,%41'O
## 1/C10 11.

**4PII/114**
TXURI URDINera irteera

**1^4iLAWI**
OLINPIADAK





**ilcAlt44**
UNTA KUTZ-era irterra
EUSKAL JOLASAK

**1114114**
EKINTZA KULTURA

**42,41/04**
*Uinkatzeko)*
Tabak
Kromoak
Txapak...





# S7zetzatu zahana



,......00 'labete honetako erretratu zaharra 1967ko maiatzean ateratakoa da eta **Maialen Olazabalek** ekarri digu. Jaurnartzea egin zuten guztien izenak ez dakizkigun arren, gehienak lortu ditugu.

Goian: **Mari Carmen Arriola, Juanita Iriondo** eta **Marina.**

Erdian: **Lucia Larrañaga, Maria Angeles Salegui, Juani Loyola, Izaskun Urbizu, Maria Luisa Salegui.**

Behean: **Javier Garate, Jose Felix Garate** eta **Javier** Larrañaga.



*ESKERTZA*

*2004ko apirilaren 21ean, 84 urte zituela hil zen, EUGENIO MUGICA ITURZAETAren anai-arrebak, ilobak eta gainerako sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# informazioa

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 23 | Bidasolo | Bidasolo |
| 24 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 25 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 26 | Fernandez | Fernandez |
| 27 | Yudego | Yudego |
| 28 | Zabaleta | Zabaleta |
| 29 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 30 | Ibariez | Ibañez |

**FARMAZIAK**

ESCALA, Rekakle, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

71BAIETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

25 igandea Ibarrenea

## EuskoTren

DONOSTIA-B11130
Eguaero
DonosbaAssw. 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
• laiegurtetan 7.45ean hasiko dira

MENDAROELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07 50 08.50... 21.50

## EuskoTren

MII OBt S AK

BILBODONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7_00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
*iaiegunctan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## ELGOIBAR

| SIMAIA | | ARRIASA | |
|---|---|---|---|
| 1;1;1;11.0.1.: | | | |
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESENO TELEFONOAN

**OSASUNA**

Anbulatorioa .................... 943 03 26 10
Planning-a .................... 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak .................... 943 74 03 85
D.YA (anbulantzia) .................... 943 46 46 22
Gurutze Gorria .................... 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea .................... 943 03 28 00
Odol Emaileak .................... 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak .................... 943 74 04 42
PESA (Eibar) .................... 902 10 12 10
Taxi geltokia .................... 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua .................... 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua .................... 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua .................... 943 74 21 58
Mendaroko Udala .................... 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua .................... 943 74 10 08
Udaletxea .................... 943 74 10 50
Udaltzaingoa .................... 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra .................... 943 74 16 26
Kiroldegia .................... 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa .................... 943 74 30 88
Liburutegia .................... 943 74 35 25
Musika Eskola .................... 943 74 21 45
Mintxeta .................... 943 74 43 15
Parrokia .................... 943 74 08 42
Postetxea .................... 943 74 15 47
Gaztetxea .................... 943 74 35 72
Gazte Informazioa .................... 943 74 14 61

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza .................... 943 74 02 96
Zaharren Biltokia .................... 943 74 05 26
Eguneko Zentroa .................... 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola .................... 943 74 21 41
HHI (EPA) .................... 943 74 08 80
Herri Eskola .................... 943 74 08 79
I.M H .................... 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre .................... 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) .................... 943 74 80 19
I kastola .................... 943 74 44 41
Pilar Ikastelea .................... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN .................... 943 74 41 12
El Diario Vasco .................... 943 74 40 73
El Correo Espariol .................... 943 74 10 82
Zazpiki irratia .................... 943 74 34 74
Egunkaria .................... 943 30 02 28
Gara .................... 943 31 69 99

# "Plazer bila (atseginezr Josu Mujikak zuzendutako dantia teatro ikuskizuna apirilaren 30ean

## Obraren estreinaldia izango da Herriko Antzokian

JM Dantza Teatroa taldeak "Plazer bila (atseginez)" dantza-antzerki ikuskizunaren estreinaldia eskainiko du apirilaren 30ean, barixakuan, Herriko Antzokian. Josu Mujika dantzari eta koreografo elgoibartarra dago ikuskizun honen atzean eta aurrean. Atzean, bera baita zuzendari artistikoa, koreografoa eta eszenografiaren arduraduna. Aurrean, berriz, bederatzi dantzari-aktoreetako bat gehiago delako.

Plazerraren ideian oinarritutako ikuskizuna da, hau da, jatea, kontaktu fisikoa, hedonismoa edo irrika, besteak beste. Pertsonaia neutro batzuek sentitu eta bizi dituzte plazer egoera hauek, eta neutraltasuna areagotzeko antzezleak berdin jantzita daude, emakume zein gizon izan.



Eszenatokia biluzik dago, pertsonaiek ematen diote bizia. Giroak retro estiloko dantza leku bat gogora arazten du nolabait, zerbitzari eta argietaz arduratzen den tekniko eta guzti. Bi hauek ikuskizunaren teknikariak ere badira.

Aukeratu duten musika selekzioa zabala eta anitza da, ukitu dituzten estiloen zerrenda da honen lekuko: etnoa, klasikoa, rock-a, musettea, etab. Besteak beste, "Amparanoia", "Andrew Sister", "Van Morrison", "Keke1e", "Brian Eno", "Echobelly", "Rossini" edo "Gotan Project" talde eta konposagileen musikak entzun ahal izango dira. Saioa gaueko 22:15ean hasiko da. Sarrerak Pitxintxu dendan eskura daitezke aurrez 8 euroren truke.

# Zinea eta Kolektiboak zikloa eskainiko du Ongarri Zine Klubak

## Apirilaren 29an hasiko da zikloa "Samsara" filmarekin eta ekainaren 3an bukatu

Ongarri Zine Klubak "Zinea eta Kolektiboak" izenburupean herriko kolektibo ezberdinekin elkarlanean antolatutako zikloa antolatu du. Apirila eta ekaina bitartean sei filma eskainiko dituzte Herriko Antzokian. Zine Klubekoak kolektibo bakoitzaren jarduerarekin erlazioa edo zerikusia duten filmak aukeratzen saiatu dira. Guztira zortzi dira parte hartuko duten herriko kolektiboak: Elgoibarko Izarra, Morkaiko Mendizale Elkartea, Gazte Asanblada, Egur Arte tailerra, Ikastetxeak, Haizea Emakume Taldea, Haritz Dantzari Taldea eta Ongarri Argazkilari Kolektiboa. Zine Klubeko arduradunek aipatu digutenez, "zapore edo kutsu kulturala daukaten filma sorta osatu dugu. Zine komertzialetik aldentzen dira, baina ez dira batere film arraroak eta jendearen gustukoak izango direlakoan gaude. "Samsara" filma alemaniarra izango da zikloari hasiera emango diona datorren ostegunean, apirilaren 29an. Alemaniar diruarekin egina izan arren, Pan Nalin dokumental egile indiarrak zuzendu du. Nalinek BBC moduko telebista kate ezagunetarako hainbat dokumental egin ditu ekialdeko gaiei buruz. Europa osoan publikoaren artean arrakasta izan du. Saio guztiak 22:15ean hasiko dira.



### AMILA
**29 eguena**
22.15
Elgoibarko Izarra eta Morkaiko

### MAIATZA
**6 eguena**
22:15
Gazte Asanblada
**13 eguena**
22.15 *y terrer*
Ikastetxeak
**20 eguena**
22.15 *2omindo si dios quir*
Haizea Emakume Taldea
**27 eguena**
22:15 *Company"*
Haritz Dantza Taldea

### EKAINA
**3 eguena**
22.15 *" -9firle la*
Ongarri Argazkilari Kolektiboa eta
Egur Arte tailerra

# "Mac Muak" txotxongilo ikuskizuna izango da apirilaren 25ean Herriko AnUokian

## Bestalde, "25 conejos igual a una vaca" ikuskizuna bertan behera geratu da

Behibi's Taldeak "Mac Muak" sei urtetik gorakoentzako txotxongilo ikuskizuna eskainiko du apirilaren 25ean, domeka honetan, Herriko Antzokian. Mamuak dira ikuskizuneko protagonistak eta bizitoki bat bilatzeko dituzten arazoak istorioaren ardatza. Izan ere, duela urte asko lasai asko bizi ziren mamuak kalean edozein pertsona izutzeko oztoporik batere gabe. Mundua beraiena zen, baina makina berrien sorkuntzak, kutsadurak eta hiriko kaosak kaleak leku arriskutsu bihurtu zituzten. Hortaz, etxeetan ezkutatu behar izan zuten mamuek, baina etxe barruetako egoera ez zen xamurragoa, zeren eta moztu, txikitu, zapaldu edo garbitu egiten duten etxeko tresnek kalea baino arriskutsuagoa egiten zuten etxea. Horrela, benetan lasai bizitzeko leku bakarra aurkitu zuten: koadroak. MacMuak-tarrak bezala munduko beste mamu guztiak koadroetan bizi dira. Badira mamuak Monalisan, Meninetan edo norbere egongelako bodegoietan. Saioa arratsaldeko 16:30ean hasiko da.




### Antzerkia bertan behera

Elgoibarko Udaleko Kultura Zerbitzutik jakinarazi digutenez, El Chou de Jacinto Jacinto taldeak gaur gauean (hilak 23) eskaini behar zuen "25 conejos igual a una vaca" antzezlana bertan behera gelditzen da, Udalari ez dagozkion arrazoiengatik.

ARMERIA ESKOLA
Goi Mailako L.H.ko Berariazko Institutoa
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44

2004/2005 IKASTURTEA

HEZKUNTZA ESKAINTZA
"A" eta "D" EREDUAK (Gauez eta Egunez)

BATXILERGOA: ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK: MEKANIZAZIOA; EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK: PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA (BERRIA); MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA; PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA; INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA; TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK; ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK

MUGARIK GABEKO "TALDE EICINTZA" ZUREA ETA GUREA

IZENA EMATEKO:
Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak, maiatzaren 3tik 7ra (biak barne).
Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 1 etik 9ra (biak barne).

# XI. Jose Gurrutxaga Haur Krosa igande honetan izango da

## 435 ikaslek eman dute izena 14 lasterketatan parte hartzeko

Jose Gurrutxaga Haur Krosaren 11. edizioak parte hartze handia izango du aurten ere, 435 haurrek izena eman baitute. Domeka honetan, apirilaren 25ean, ospatuko da krosa. Lehen lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da eta 97an jaiotako neskek egingo dute antxintxika lehendabizi. Segidan mutilen txanda izango da. Jarraian 96an jaiotako nesken lasterketa eta ondoren mutilena. Lasterkari hauek 320 metroko distantzia bete beharko dute: Plaza Handia, Errosario kalea, Kultur Etxea, San Bartolome kalea eta berriro plaza. 11:I5ean, 95ean eta 94an jaiotako neska-mutilek 615 metro egin beharko dituzte Loriton bira emanez. 11:30ean, berriz, 93an eta 92an



jaiotakoek 955 metro burutu beharko dituzte Madalan buelta emanez.

Eguerdiko 12:00etan 13. lasterketa izango da eta konikalariek 1.420 metro bete beharko dituzte. 91n, 90ean, 89an eta 88an jaiotako neskek, denek batera, lasterka egingo dute. Hauek plazatik hasita, Errosario, San Bartolome, Santa Ana, Trenbide kalea, Bernardo Ezenarro, Urruzuno, San Bartolome eta Plazaraino itzuli beharko dira. Ondoren, azken lasterketa izango da, mutilena. Hauek ere 1.420 metro egin beharko dituzte.

Azken lasterketa amaitu bezain pronto sari banaketa ekitaldia hasiko da. Partaide guztiek jasoko dute domina, eta adin bakoitzeko lehen neskak eta lehen mutilak baita trofeoa ere.

# Jaioherrientzako igeriketa ikastaroak maiatzetik aurrera



Udal Kirol Patronatuak jaioberrientzako igeriketa ikastaro berria antolatu du aurrekoek izan duten arrakasta ikusirik. Maiatzaren 8tik uztailaren 10era bitartean luzatuko da, hamar saio, beraz. Hiru eta hamabi hilabete eta 13 hilabete eta 24 hilabete bitarteko haurrei zuzendutako ikastaroa izango da. Klaseak zapatuetan izango dira. Prezioari dagokionez, kirol txartelarekin 125 euro ordaindu beharko da eta kirol txartelik gabe 150 euro. Izena emateko epea apirilaren 26tik 30era bitartean izango da eta Olaizaga Kiroldegian bertan egin daiteke izen ematea.

ILJEMCC) ILOCOALILIERCLIP 1EN IESOCAINTZA.

dt,m..st,,x1,3rmait<sO
TAILDGA

UDALEKU 1REKIAK

Ekainaren 28 tik uztailaren 23ra
HH (3-5 urte) eta LH 1-2
9:30 - 12:30

UDALEKU ITXIAK

| Auktixa | f3ernedo (Arabo..) | ofza arroa) |
| --- | --- | --- |
| Uztailaren 5etik 10era | Uztailaren lltik 19ra | Uztailaren 2tik llra |
| LH 1-2-3 | LH 4-5 | LH 6 eta DBH 1-2 |

GAZ-T

AISIALDI TALDEA

UDALEKU 1TXIAK

| otza (Na arroo,) | Acioain (Araba) |
| --- | --- |
| Uztailaren 2tik llra | Uztailaren 2tik 14ra |
| LH 6 eta DBJH 1-2 | DBH 3-4 |

Izen-emate epea apirilaren 27etik niaiatzaren 7ra.

Informazioa gehiago: Itzarra Kultur Elkartea (Ubitarte 4, behea)
Tel.. 943 74 16 2z) • E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com

# Herriko hiru bikote ari dira Debarroko Esku Pilota Txapeiketan parte hartzen

Martxo bukaeran hasi zen Debarroko Pilota Txapelketaren 57. edizioa. Debagoiena eta Debabarrenako 10 pilota talde ari dira parte hartzen txapelketan beste hainbeste herri ordezkatuz (Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola, Eibar, Elgeta, Deba eta Elgoibar). Elgoibarko Lagunak Pilota Eskolak ere hiru bikote aurkeztu ditu txapelketan, nahiz eta kanpoko pilotariengana jo behar izan duen bikoteren bat osatzeko. Gauzak horrela, Txurruka eta Portu dira kadete mailako pilotariak. Jubenil mailako bikotea, berriz Aitor Agirrebeña aurrelari mendaroarrak eta Markiñako Beñat Arrietak osatzen dute, biak ere 18 urtekoak. Azkenik Ulazia eta Loiola dira nagusien mailako bikotea.

Debarroko Txapelketaren finalak ekainaren 26an jokatuko dira Eskoriatzan. Afizionatu mailako txapelketarik garrantzitsuena da gaur eta urte mordotau ere halaxe izan da. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko esku pilota elkarteen ekimenez sortu zen entzute handiko txapelketa hau 1948. urtean. Historialari begiratuta Elgoibar, Bergara eta Oñatiko pilotariak izan dira nagusien mailako dominatzaileak. Jubeniletan Arrasate, Ermua eta Bergarako pilotariak izan dira indartsuenak eta infantil mailan, berriz, Ermuko eta Arrasateko pilotariak.



*Argazkian Aitor Agirrebefi a.*

# Nerea Egañak Eibarko I. Aerobik Maratoia irabazi du

Udal Kirol Patronatuko aerobik irakaslea den Nerea Egañak irabazi du Eibarko I. Aerobik Maratoia. Inguruan antolatzen diren aerobik maratoietan parte hartzeko ohitura duela azaldu digu elgoibartarrak: "Duela sei urtetatik naiz aerobik irakaslea eta hasieratik izan dot maratoi hauetara joateko ohitxuria. Bergarara, Bilbora edo Donostikora urtero joaten saiatzen naiz. Parte hartziaz gain nere klasietarako baliogarrixak izan leikezen koreografixak ikasten ditxudalako hasi nintzan juten. Eibarkua irabaztia sorpresa izan da, baina gustura hartu dot". Garaikurra eta Forum dendan gastatzeko 120 euro lortu zituen Nereak bi orduz jarraian aerobika egiten erakutsitako trebetasunagatik. Denera 100 lagunetik gora izan ziren Eibarren izena eman zutenak, baina bizpahiru bakarrik zirela mutilak aitortu digu.

Epaimahia osatzen duten aerobik adituek partaide bakoitzak koreografiak ikasi eta bereganatzeko duen gaitasuna aztertzen dute horrelako lehiaketetan. Eta honekin batera, teknika eta estiloa ere kontutan hartzen dituzte. Nerea profesional edo irakasleen sailean lehiatu zen eta aipatu digunez zailtasun eta maila handiko koreografiak prestatu zituzten antolatzaileek. Bestalde, Nereak aurreratu digunez Elgoibarren ere aurki izango dugu, maiatzean hain zuzen, antzerako maratoi bat, baina aerobikekoa izan beharrean spinning maratoia izango da.




## EMAITZAK

### Futbola

Zarautz 0 - Haundi 0 (Pref.)

### Esku pilota

Debarroko Txapelketa

Lagunak 22 - Oskarbi **14** (Nag.)

Lagunak 22 - Arrasate 10 (Jub.)

Lagunak 22 Oskarbi 2 (Kad.)

### Areto Futbola

Sestao 10 - Kenci Elg. 3 (Nazional B)

Lanbroa **4** - Sport Authority 4 (1. maila)

### Eskubaloia

Tecnomeca Elg. **24** - Amenabar Ztz **19 (Kd. Mt.)**

Comete I Elg. 27 - Amenabar-Ztz **15 (Jub.Nesk.)**

Pagoaga Elg. 36 - Urola-Premalk 17 **(Kad. Nsk.)**

ANTT Softlan 22 Usurhll 32 (Sen. Mut.)

Gatz museoa 21 - Tecnomeca **Elg. 15 (Kd. Mut.)**

Leizaran 11- Pneumax Elg. **25 (Jub. Mut.)**

Ereintza **31 -Tecnifuelle Elg. 26 (Sen. Mut.)**

## AGENDA

### Eskubaloia, Kiroldegian

23, barixakua

20:30 Tecnifuelle Elg. - Pulpo (Sen. Mut.)

24,zapatua

**17:00** Pneumax Elg. -Aitxuri Jatetxea (Jb. Mt.)

### Futbola, Mintxetan

24, zapatua

16:30 Haundi - Hernani (Pref.)

25, domekia

11:30 Elgotar - Touring (Neskak F-8)

16:30 Elgoibar - Martutere (Jub.)

### Esku pilota

27, marlitzena

19:00 Lagunak- Euskal Jolas **(Kad.)**

# hk4 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Gipuzkoako enpresak etxez-etxeko laguntzailea behar du. Erref. 4002213

irungo enpresak elektrikaria behar du. Erref, 4002311

Donostiako enpresak telekomunikazio komertziala behar du. Erref. 4002310

Oiartzungo enpresak optikoa behar du. Erref. 4002270

Eibarko enpresak giza baliabideetako irakaslea behar du. Erref. 4001628

Usurbilgo enpresak kazetari komertziala behar du. Erref. 4001992

Donostiako enpresak kamioi gidaria behar du. Erref. 4002115

Oiartzungo enpresak mekanikoa behar du. Erref. 4002049

Mutrikuko enpresak ile apaintzailea behor du. Erref. 4001592

Elgetako enpresak begiralea behar du. Erref. 4001230

Gipuzkoako enpresak administraria behar du. Erref. 0197334

Gipuzkoako enpresak fisioterapeuta behar du. Erref. 0197359

Hautogol moduan sarizea eskatu nohi baduzu **901222901** telelonoro deilu edo 'Iangai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile houetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOn) **943 74 41 32** telefonora.

ESKAERA

o Emakumea goizez edo arratsaldez umeak zaintzeko prest.
tr 943 74 27 41

o Emakumea goizez edo orduka etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prestis 943 53 02 02 (Astelehenetik ostegunera, 11:00-12:00 edo 20:00-21:00)

*Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak zaindu, bulegoak garbitu, etxeko lanak edo lorotegi lanak egiteko. s 660 ST 17 81

ESKAINTZA

Emakumea behar da bi ume zaintzeko. it 943 74 23 08

• Astean zehar lan egiteko kamareroa behar da. ꟾ7 665 850 425

Emakumea behar da umeak zaintzeko. tr 646 65 37 83

Kamarera gaztea behar da tabernarako. tr 943 74 37 71

o Elgoibarko Makina Erremina enpresa ezagun batek esperientziadun "proiektista mekanikoa" behar du. Autonomo edo kontratuarekin.
605 77 53 57

# Pop11 111apPalt

ingeles irakaslea behor da. Firsi eta ingeles komertziala. tr 636 44 55 43

# Lokallak

tit 173m2 eta 4m, cituerako lokala salgai Sanici Klaran. Sukaldedun txokoa eta garaje atea. Erabilpen asko izan dikake. tr 680 112 938

# Etxebizitzak

♦ Pisua salgai San Roken. 90m², 3 iogeia, egongela, 2 bainugela. Eguzkitsua. Ganbara eta garajearekin.
*tr* 696 06 15 87 (astelehenetik ostegunera 16:00-22:001

♦ Etxea salgai San Frankisko kalean. Eguzkitsua, 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizikera sartzeko moduan. sz 943 74 80 92 (MgJose. Astelehenetik ostiralera T 0:30-13:00)

Apartamentua alokatzen da Benidorm-en. ssr 943 76 38 10 (dendako ordutegia)/943 74 06 28 (gauez)

*Pisuo salgai. 3 logela, sukalde-jangela, komuna. Altzariekin. Berritua. Prezio interesgarria **Ir** 661 42 60 77

rr. Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. sr 636 22 31 42

*Etxecr salgai Castro Urdialesen. Hondarizatik gertu. Oso
tr 651 99 10 30

♦ Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Eraikuntza berria, Bateles hondartza ondoan. Konpletoa.
so 680 44 26 68

o Apartamentua alokatzen da Saloun. Hondartzako lehen ilaran. Novelty eraikuntza. Konpletoa, aire egokitua, igerilekua eta garajea. irr 629 98 98 99/ 943 81 42 38

Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. tr 649 38 83 03

Etxea salgai Arregitorren. Berribia, 3 logela, egongela, bi komun, ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
zt 679 83 04 38

*Apartameniva salgai erdigunean. Eguzkitsua eta zeharo berritua.
tr 696 74 91 59

♦ Pertsona bat behar da Donostiako Antiguo auzoan pisua konpartikeko.
tr 943 31 39 06 (20:00-22:00)

tr 656 78 07 48

o Pisua hartuko genuke alokairuan.
as. 652 73 73 91

# Garajeak

♦ Garajea salgai Pedro Muguruza 1 1 n. Trasteroa egiteko aukerarekin.
tir 605 775 398

*Garajea salgai Santa Ana 6an (Ame-Isa parean) 12- 943 74 05 85/615 70 78 57

• Garaje plazak alokatzen ditut Mendaron. Ts 943 03 36 11

o Garajea alokatzen da Bernardo Ezenarro kalean, Eroski azpian.
ter 943 74 27 24 (arratsaldez)

# Bestelakoak

* Egunero joaten naiz kotxez Arrasatera 8:00etan eta 17:30ean bueltatu. Kotxea konpartituko nuke. ix 943 74 27 47

*Markoaren 14an lepoko bi kate galdu nituen. Ekeberriatik elizara eta tuetara bitartean.0 943 74 24 70

♦ Caritasek butanozko berogailua hariuko luke eta jangelarako armaiwa eskaintzen du. 13. 943 74 15 09

# SalePositetak

♦ Peugeot 206 autoa salgai, berria dago. tr 943 74 16 94

bikientzako hiru gurpildun aulkia salgai. tr 943 74 44 08

♦ Citroen ZX salgai, 900 euro.
tr 678 80 35 35 (Gerar)

• Silver-cross markakao umearen aulkia salgai. Fundak, kapota, Prenatal naterki aulkid eta 3 urtera arteko autoraka aulkia salgai. 90 euro, s 943 74 39 43 122:00etatik aurrera)

*Peugeot Partner, 1.5 diesela salgai. $660 55 15 34

♦ Errepiderako Fiandes bizikleta salgai. 3 plato, berria. Rozeso Mountain Bike, eta porta bizikletasa giltza eta seguruarekin.1020 euro. it 652 72 76 31

*Serieko liantak salgai neumatikoekin, Peugeot 206 GTI autoarenak. Hiru betez bakarrik erabiliak.
12 696 89 60 88

tY CORDON VILMICHRO

DEKORAZIOA

InIrren kotolariaa
latracura• eger, aiurtinio,
Pintirra ordrorre

GIRUPO

**San Roke, 7 behea**
**Pol. Olaso - Olasope kalea, 16 -25 eta 26 modulaa**
**Tel. 943 740 570**



)NTURAK

*PEDRO PEREZ BERISTAIN*

Xixilion, 2. 3.sotoa Ir 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUN1TATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK • PINTAKETA

# agenda

2004-IV- 23

## 23 BARIXAKUA

22:00 **BIDEO-FORUM-A**
Filma: "Solo mia"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 25 DOMEKIA

11:00 **XI. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA**
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola



16:30 "MAC **MUAK" IKUSKIZUNA**
6 urtetik gorakoentzat
Taldea: Behibi's
Herriko Antzokian

## 26 ASTELEHENA

17:00 **JOSEBA RAMIREZ IPUIN KONTALARIA**
Udal Liburutegian

## 29 EGUENA

19:30 **HITZALDIA**
Gaia: Nazioarteko Amnistia Erakundea
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 30 BARIXAKUA

17:30 TXOTXONGILO **IKUSKIZUNA**
Lana: "Lau anai umezurtzak"
Plaza Handian
22:15 **"PLAZER BTLA (ATSEGINEZ)" DANTZA-TEATROA**
Taldea: JM dantza Teatroa
Herriko Antzokian



## KIROAL

**Wing Tsun ikastaroan**

Wing Tsun edo Kung-Fu gisa ezagunagoa den defentsa pertsonalerako arte martzialean interesatuta daudenak zorioneko daude, Olaizaga Kiroldegiak Wing Tsun ikastaroa antolatu baitu. Maiatzaren 4an hasiko dira klaseak eta asteartero eta ostegunero izango dira 19:00etatik 20:30era. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko Olaizaga Kiroldegira jo.

## SINADURAK

**Europako hauteskundeak**

Europako hauteskundeak direla-eta, ezkertiar eta abertzaleek kandidatura nazional bateratua aurkeztu nahi dute zazpi probintzietan. Aurkeztu ahal izateko, ordea, beharrezkoa da sinadurak lortzeko kanpaina martxan jartzea. Elgoibarren ere izango da sinadura emateko aukera. Zapatu honetan, adibidez, goizeko 9:30etik 14:00ak arte izango da sinatzeko aukera udaletxeko idazkaritzan. Astean zehar ere egunero izango da aukera, bai Udalean (goizez) eta baita Notarian ere (goiz eta arratsaldez). Sinadurak jasotzeko azken eguna maiatzaren 7a izango da.

## ZINEA



### "Samsara"

**Zuzendaria: Pan**
**Antzezleak: Shawn Ku, Christy Chung, Neelesha Bavora.**
Himalayako Ladakh lurraldean, 5.000 inetrotako altueran bizi den Monje Budista baten bizitza kontatzen digu filmak. Monjeak hiru urte, hiru hilabete eta hiru egun pasa ditu ermita batean baraurik eta meditazioari emanda. Familiakoen ondora itzultzean, ordea, gainontzekoek sentitzen dituzten emozio eta haragi gosea nabari dituela bere barnean ohartuko da. Obitura eta tradizio etniko eta erlijiosoei atxikiturik bizi den komunitate baten bizimodua ikuskatzeko aukera eskaintzen digu zuzendariak irudi eta koloreen indarraz baliatuz.

2004-1V-23

## 1KASTAROAK

Barreterapia ikastaroa

Barreterapia ikastaroaren laugarren jardunaldia ospatuko da Aubixa baserrian domeka honetan, apirilaren 25ean. Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara izango da ordutegia. Bertan, barreak osasunean dituen onurak aztertzen jarraituko dute, bame korapilo asko askatzeko tresnarik egokienetakoa dela frogatuz.

Buztin ikastaroa

Lurki Zeramika Elkarteak buztin ikastaro berri bat eskainiko du maiatzaren 3tik ekainaren 3ra bitartean. Bertan, torrtua erabiltzeko oinarrizko zantzuak irakatsiko dituzte. Arratsaldeko 18:00etatik 2I:00etara izango dira klase orduak astelehenetik ostegunera. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko Aita Agirre Plaza behea-ezkerra helbidera joan edo 677 466 344 telefonora deitu.

## OSPAKIZUNAK

Herri Urrats Senperen

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru aldundiaren laguntzaz, maiatzaren 9an, domekan, Senperen ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du. Goizeko 8:30ean aterako da autobusa eta 19:30ean bueltatu. Izena emateko Elgoibarko Izarrara joan behar da: Ubitarte 4. Telefonoa: 943 74 16 26. Elkarteko bazkideek 6 euro ordaindu beharko dituzte eta 9 euro bazkide ez direnek. Izena emateko azken eguna maiatzaren 7an izango da.

## IKUSK1ZUNAK

Joseba Ramirez ipuin kontalaria

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, apirilaren 26an, astelehenean, Joseba Ramirez ipuin kontalariak saio bat eskainiko du Udal Liburutegian. Bi saio eskainiko ditu zehazki. Lehenengoa 3, 4 eta 5 urtetako haurrentzat 17:00etan eta bigarrena 1,2 eta 3. mailako umeentzat 17:30ean,

## DIANGOAK

Hondarribira txangoa

Jubilatuen Biltokiak Hondarribira txangoa antolatu du maiatzaren 12rako. Jubilatuen Biltokian izena ematen dutenak goizeko 8:45ean aterako dira autobusez udaletxe azpitik. Izena emateko prezioa 22 eurokoa izango da, Oiartzungo Gurutze Berri jatetxean egingo den bazkaria barne.

## HITZALIKAK

Nazioarteko Amnistia

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, Nazioarteko Amnistia Gobernuz Kanpoko Erakundearen gaineko hitzaldia izango da apirilaren 29an, eguenean, Kultur Etxeko Erakusketa gelan 19:30etatik aurrera. "Ernakumearen egoera munduan zehar" erakusketaren ildotik antolatu dute hitzaldia eta honako gaiak ukituko dituzte bertan: Zer da nazioarteko Amnistia?, sorrera, helburuak, lan egiteko moduak, Nazioarteko Amnistiak emakumearen egoerari buruz 2003an argitaratu zuen txostena, generozko tratu txarrak eta etxeko tratu txarrak, gerraren eraginez errefuxiatuta dauden emakumeak, besteak beste.

## [1101R zine

KARTELDEG IA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Lost In Trasiation"

23, barixakua: 22:15

24, zapatua: 19:30-22:15

25, domekia: 19:30-22:15

26, astelehena: 22:15

"Samsara" (Z.K.)

29, eguena: 22:15

EIBAR, Unzaga

Mala educaeliln"

23, barixakua: 19:30-22:15

24, zapatua: 17:00-19:30-22:30

25, domekia: 17:00-19:30-22:30

26, astelehena: 19:30-17:15

27, martitzena: 19:30-22:15

2 e. ella: 9:30-11:15

EIBAR, Rialto

"El Cl esettadte"

23', barixakua: 19:30-22:15

24, zapatua: 19:30-22:15

25, domekia: 19:30-22:15

26, astelehena: 19:30-22.15

27, martitzena: 19:30

28, eguaztena: 19:30

"Scooby Doo 2"

24, zapattta: 17:00

25, domekia: 17:00

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "Lost in Waslation"

Zuzendaria: Sofia Coppola.

Antzezleak: Bill Murray, Scarlett Johansson, Giovanni Ribisi.

Bob Harris (Bill Murray) emaztea eta semeak Estatu Batuetan laga eta Whisky marka baten iragarki kanpainan parte hartzeko Tokiora joan den Hollywoodeko aktorea da. Bera dagoen hotel berean aurkitzen da Charlotte (Scarlett Johansson), Japoniako hiriburura bere senar argazkilaria la,guntzera joan den neska gaztea, alegia. Biek dituzte arazoak gauetan lo egiteko eta beraien bikoteengandik urruntzen ari direla nahari dute.

ZINEA

# erretratu zaharra

2004-IV- 23



Aste honetako erretratu zaharra **Jose Mari Txurruka** mendaroarrak laga digu. 1943ko argazkia da, eta Pilar ikastetxeko kanpo aldean aterata dago. Begira nolakoa zen garai hartan Pilar ikastetxea!

Azkenaldian Pilar ikastetxea itxi egin hehar dutela entzun dugu, eta polita iruditu zaigu argazki hau kaleratzea. Mutiko hauek zapaltzen ari diren iurra hamaika ostiko hartutakoa da, bertan jokatzen baitzuten ikasle guztiek futbolean. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri diren mutidak.

Goian, ezkerretik eskumara: **Sabin Juaristi "Artazo", Luis Arrieta, Pedro Arriola, Agustin Arriola, Jose Mari Txurruka, Antonio Herrero,** eta **Julian Ansola.**

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: **Patxi Opakua, Jesus Mari Izagirre, Luis Mari Iriondo, Fernando Donabeitia** (apaiza), **Amadeo Aizpitarte, Jose Iguazio Ulazia, Ramon Arozena (11)** eta **Luis Maria Ruiz de Gauna.**

Makurtuta: **Anjel Fernandez de Jauregi, Alberto Loiola (t), Jose Antonio Etxeberria, Manolo Zabala, Alejandro Iriondo** eta **Juan Manuell Ibarluzea (t).**



**Marci Godoy**

*I. URTEURRENA*
*Ni joaterakoan luzatu zure eskua,*
*eta nirekin egonen zara bihotzez*
*nahiz eta ni ez ikusi, nahiz eta ni ez ikutu,*
*jakinen duzu betiko zure alboan egonen naizela.*
*Orduan egun batean pozez eta irribarrez jakinen*
*duzu ez joateko etorri nintzela*
*Zure seme-alabak ete biloba*





*I. URTEURRENA*
*2003ko apirilaren 23an, 78 urte zituela hil zen*
*JOSE RAMON ORTUOSTE ELORDIETAren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da*
*larunbata, hilak 24, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.*
*Ioango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*




plazer bila
(ATSEGINEZ)
Apirilak
30
22;15ean
HERSIKO
ANTZOICAN
dantza
teatroa
autorlegilea
JOSU MUJIKA


LA SALLE AZITAIN IKASTETXEAK
2004-2005 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:
BATXILERGOAK:
GIZARTE ZIENTZIAK
OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTIFIKO-TEKNIKOA [A eta D]
Etengabeko Jarduna
Ba [redacted] zuretzat!
wwwillasalle.es/elbarlasalle
DEITU 943 121 898 943 202 505 Telefonoetara • MAIATZAREN 3tik 7ra

# BASKO RENT

**GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIRUA**

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GARBI eta PREST!




## ESKAINTZA BEREZIA:

PNEUMATIKOAK 4 X 3- 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU

**ESKUZ EGINIKO GARB1KETA**

**GARBI KETA AUTOMATIKO PUBLIKOA**







## HORREZ GAIN:

- Olioaren edo filtroen aldakEta
- PnEumatikoEn aztErkEta Eta aldaketa
- BalaztEn EtE EsEkidurarEn aztErkEta
- MantenimEndu orokorra

## S1GMAKO 1NDUSTRIALDEAN: GAU D E

**7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar**

**ir 902 103 287**

MICHELIN Tirestone GOOD,YEAR